



Recurso 7/2016 Errekurtsoa Resolución 5/2016 Ebazpena

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Traeco Medioambiental SL enpresak kontratazio alorreko errekurtso berezia aurkeztu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren Administrazio Kontseiluko Lehendakariaren 2016ko urriaren 18ko 33/2016 Dekretuaren kontra, zeinaren bidez Garrai SA eta Biergrim SL enpresek osatutako Txingudi aldi baterako enpresa batasunari esleitu zitzaion Txingudi Mankomunitateko hiri hondakinen garraio zerbitzuen kontratua. Errekurtso horri erantzunez, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, goian aipatzen diren kideen parte hartzearekin 2016ko azaroaren 21ean egindako bileran, erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por TRAEKO MEDIOAMBIENTAL, S.L. contra el Decreto 33/2016, de 18 de octubre, del Presidente del Consejo de Administración de GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U. por el que se adjudica a UTE TXINGUDI, formada por las empresas GARRAI, S.A. y BIERGRIM, S.L., el contrato de servicios de transporte de residuos urbanos de la Mancomunidad de Txingudi, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 21 de noviembre de 2016 con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2016ko azaroaren 10ean, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUko sarrera erregistroan sartu zen bezperan Andoaingo posta bulegoan aurkeztutako idatzi bat, zeinaren bidez (...) jaunak, Traeco Medioambiental SL enpresaren ordezkartzan eta izenean, kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako ekintzaren kontra.

Errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera, agertutako alderdiaren ordezkartza egiaztatzen duen dokumentu bat aurkeztu zen, eta baita ere aurkatutako ebazpenaren kopia, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez

ANTECEDENTES

PRIMERO.- El 10 de noviembre de 2016 tuvo entrada en el registro de GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA un escrito presentado el día anterior en la oficina de Correos de Andoain por el que don (...), actuando en nombre y representación de TRAEKO MEDIOAMBIENTAL, S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito de interposición se acompaña el documento que acredita la representación del compareciente, copia de la resolución recurrida, el anuncio al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del

onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 44.1. artikuluan aipatzen den iragarkiaren kopia, eta errekurtsogileak bere eskubidea oinarritzeko erabilitako dokumentuak.

BIGARRENA.- 2016ko azaroaren 15ean, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUko zuzendari nagusiaren idatzia jaso zuen Foru Auzitegiak agiri hauekin batera: errekurtsoa; kontratazio espedientea eta horri dagokion txostena; eta azaroaren 14an auzitegi honi bidalitako idatzia, zeinaren bidez (...) jaunak, enpresa errekurtsogilearen izenean eta ordezkarietan, errekurtsoa bertan behera uzteko eta espedientea artxibatze eskatu zuen.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Legeak bere 316.1 artikuluan xedatzen du ezen kontratazio alorreko errekurtso bereziak izapidetuko direla 1992ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren arabera, ondorengo puntuetan aipatzen dituen berezitasunekin.

2016ko urriaren 2az geroztik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari buruzko aipamen hori Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeari egindako aipamentzat hartzen da, egun hartan sartu baitzen indarrean azken lege hori aurrekoa indargabetuta.

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 94. artikuluan ezartzen du interesdun orok atzera egin dezakeela bere eskaeran, eta Administrazioak bere horretan onartuko duela atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura, non eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta egonik, haiek ez duten eskatzen prozedurak jarraitzeko, edo prozesurako gaia

Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP), y los documentos en los que el recurrente funda su derecho.

SEGUNDO.- El 15 de noviembre de 2016 se ha recibido en el Tribunal el escrito del Director General de GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U. por el que remite el recurso, el expediente de contratación y el correspondiente informe, así como un escrito presentado el 14 de noviembre y dirigido a este Tribunal, en virtud del cual la mercantil recurrente, y en su nombre y representación don (...), solicita que se la tenga por desistida del recurso y se acuerde el archivo del expediente.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- El artículo 46.1 TRLCSP dispone que el procedimiento para tramitar los recursos especiales en materia de contratación se regirá por las disposiciones de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (LRJPAC), con las especialidades que se recogen en los apartados siguientes.

Desde el 2 de octubre de 2016 esa referencia a la LRJPAC ha de entenderse hecha a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (LPAC), que ha entrado en vigor en dicha fecha y derogado la LRJPAC.

El artículo 94 LPAC establece que todo interesado podrá desistir de su solicitud y que la Administración aceptará de plano el desistimiento y declarará concluso el procedimiento, salvo que, habiéndose personado en el mismo terceros interesados, instasen éstos su continuación, o que la cuestión suscitada entrañase interés general o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento, en cuyo caso la Administración podrá limitar los efectos del



interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezurmamitzea, administrazioak erabaki dezakeela interesdunari baino ez eragitea atzera egiteak, eta aurrera jarraitzea prozedurak.

Kasu honetan ez da ematen errekurtsoa hezurmamitzen jarraitzeko aukera emango luketen gorabehera horietatik bat bera ere, eta, beraz, onartu egin behar da atzera egin izana.

BIGARRENA.- Ez da ikusten errekurtsoa jartzean fede txarrik edo ausarkeriarik izan denik eta, beraz, Auzitegiak ez du errekurtsogileari inolako isunik jartzeko asmorik, Kontratuen Legeko 47.5 artikulua dioena betez.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

E R A B A K I T Z E N D U

Atzera egiteagatik amaitutzat ematea TRAECO MEDIOAMBIENTAL SLk jarritako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 49.1 xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Donostia, 2016ko azaroaren 21a

desistimiento al interesado y seguirá el procedimiento.

En el presente caso no se da ninguna de las circunstancias que permitirían continuar la sustanciación del recurso, por lo que procede aceptar el desistimiento formulado.

SEGUNDO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

A C U E R D A

Declarar terminado por desistimiento el recurso especial en materia de contratación interpuesto por TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

San Sebastián, 21 de noviembre de 2016